**UDALAREN ERAKETAREN EZ OHIKO SAIOAREN AKTA.-**

Soraluzeko Udaleko Batzar Aretoan, bi mila eta hamabosteko ekainaren hamahiruan, eguerdiko hamabietan, bildu dira lehen deialdian Zinegotzi hautatuak, joan den maiatzaren hogeita lauan egindako udal hauteskundeetan aukeratuak izan direnak, hain zuzen, EHBILDUko Unai Larreategi Azurmendi, Roke Akizu Aizpiri, Lorea de Castro Lete, Ainhoa Unamuno Aranburu eta Xabier Arribillaga Beretxinaga jaun-andreak, EAJ-PNVko Iker Aldazabal Basauri, Nagore Zabala Arrieta, Ramon Gallastegi Aldazabal eta Javier Garmendia Ondarra jaun-andreak eta PSE-EE (PSOE)ko Patricia Borinaga Albeniz eta Iñaki Rubio Torrientes jaun-andreak.

Parte hartzen du eta ekitaldiaren fede ematen du Idazkariak, Daniel Salazar Irusta, Udaleko Idazkariak, hain zuzen.

Idazkariak adierazten du batzarraldi horren helburua Udalaren eraketa dela, horrela betez martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorretako Lege Organikoaren 195.1 artikuluak eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 37.1 artikuluak agindutakoa, ondoko gai zerrendaren arabera:

- Udala eratzea.
- Alkatea hautatzea eta, hala badagokio, karguaz jabetzea.

Behin Idazkariak batzarraldiari hasiera emanez gero, Adineko Mahaia osatzen da, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurreikusitakoa betez, eta Mahai hori osatzen dutenak izango dira: 52 urteko Javier Garmendia Ondarra Jn.,

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA DE CONSTITUCIÓN DEL AYUNTAMIENTO.-**

En el Salón de Actos de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Soraluze/Placencia de las Armas, siendo las doce horas del día trece de junio de dos mil quince, se reúnen en primera convocatoria, los Concejales electos que han resultado proclamados en las elecciones municipales celebradas el día veinticuatro de mayo pasado, D. Unai Larreategi Azurmendi, D. Roke Akizu Aizpiri, Dña. Lorea de Castro Lete, Dña. Ainhoa Unamuno Aranburu y D. Xabier Arribillaga Beretxinaga, de EHBILDU, D. Iker Aldazabal Basauri, Dña. Nagore Zabala Arrieta, D. Ramón Gallastegi Aldazabal y D. Javier Garmendia Ondarra, de EAJ-PNV, y Dña. Patricia Borinaga Albéniz y D. Iñaki Rubio Torrientes, de PSE-EE (PSOE).

Asiste y da fe del acto el Secretario D. Daniel Salazar Irusta, que lo es también del Ayuntamiento.

El Secretario da cuenta de que el objeto de esta sesión es la constitución del Ayuntamiento en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 195.1 de la Ley Orgánica de Elecciones Generales, modificada por la también Ley Orgánica 8/1991 de 13 de marzo, y artículo 37.1 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Corporaciones Locales, conforme al siguiente orden del día:

- Constitución de la Corporación.
- Elección del Alcalde y toma de posesión en su caso.

Abierta la sesión por el Secretario se procede a formar la Mesa de Edad prevista en el artículo 195.2 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General, modificada por la también Ley Orgánica 8/1991 de 13 de marzo, que queda integrada por el Concejal electo D. Javier Garmendia Ondarra, de 52 años, por ser el de mayor

Zinegotzi hautatu zaharrena izanik, mahaiburu izango dena, eta 30 urteko Lorea de Castro Lete And., Zinegotzi hautatu gazteena izanik; Daniel Salazar Irusta Jn. Idazkari gisa arituko da, berau izango delarik, baita ere, batzarraldi honetako Idazkaria.

Mahaiko Idazkariak irakurtzen ditu, banan-banan, aldez aurretik berari entregatutako kredentzial guztiak, Zinegotzi hautatuen nortasuna kreditatzen dutenak, eta Mahaikideek egiaztatu ondoren, kredentzial horiek Zonako Hauteskunde Juntak Udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriekin bat datozela ikusten da.

**1.- UDALAREN ERAKETA.-** Aurreko operazioa egin ondoren eta kontuan izanik batzarraldi honetara etorri direla hautatuak izan diren Zinegotzi guztiak, hau da, gehiengo absolutu legala, Adineko Mahaiko Buruak karguaren jabetza ematen die zinegotzi hautatuei. Baina, aldez aurretik, promesa hartzen die Unai Larreategi Azurmendi, Roke Akizu Aizpiri, Lorea de Castro Lete, Ainhoa Unamuno Aranburu, Xabier Arribillaga Beretxinaga, Iker Aldazabal Basauri, Nagore Zabala Arrieta, Ramon Gallastegi Aldazabal, Javier Garmendia Ondarra, Patricia Borinaga Albéniz eta Iñaki Rubio Torrientes jaun-andereei.

Ondorioz, Adineko Mahaiak Korporazioa formalki eratua aitortzen du.

**2.- ALKATEA HAUTATZEA ETA, HALA BADAGOKIO, KARGUAZ JABETZEA.-** Idazkariak adierazten die bertan daudenei, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoaren bidez aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 artikuluan xedatzen denaren arabera, Korporazioa eratu den batzarraldi berdinean aukeratu behar dela Alkatea ere, lege horretan ezarritako prozedurari jarraiki:

edad, que la preside, y por la Concejala electa Dña. Lorea de Castro Lete, de 30 años, por ser la de menor edad; actúa como Secretario D. Daniel Salazar Irusta, que es también el actuante en esta sesión.

El Secretario de la Mesa da lectura a todas y cada una de las credenciales que previamente le han sido entregadas acreditativas de la personalidad de los Concejales electos y que comprobadas por los miembros de la Mesa con las certificaciones que en su día remitió a este Ayuntamiento la Junta Electoral de la Zona, resultan conformes.

**1.- CONSTITUCIÓN DE LA CORPORACIÓN.-** Realizada la operación anterior y habida cuenta de que concurren a esta sesión la totalidad de los Concejales electos y por consiguiente la mayoría absoluta legal, el Presidente de la Mesa de Edad procede a dar posesión a los Concejales electos, previa toma de promesa, D. Unai Larreategi Azurmendi, D. Roke Akizu Aizpiri, Dña. Lorea de Castro Lete, Dña. Ainhoa Unamuno Aranburu, D. Xabier Arribillaga Beretxinaga, D. Iker Aldazabal Basauri, Dña. Nagore Zabala Arrieta, D. Ramón Gallastegi Aldazabal, D. Javier Garmendia Ondarra, Dña. Patricia Borinaga Albéniz y D. Iñaki Rubio Torrientes.

En consecuencia, la Mesa de Edad declara formalmente constituida la Corporación.

**2.- ELECCIÓN DE ALCALDE Y TOMA DE POSESIÓN, EN SU CASO.-** El Secretario expone a los reunidos que tal como dispone el artículo 196 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, del Régimen Electoral General modificada por la también Ley Orgánica 8/1991, de 13 de marzo, en la misma sesión de la Constitución de la Corporación ha de procederse a la elección de Alcalde, de acuerdo con el procedimiento establecido en dicho precepto y que es

-Hautagai dira zerrenda-buru diren Zinegotzi guztiak.
-Hautesle dira bertan dauden Zinegotzi hautatu guztiak.
-Aukeraketa txartel sekretu bidez egingo da, botazio bakarra eginez.
-Botoen gehiengo absolutu legala lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz, gutxienez sei boto beharko dira.
-Botazio honetan ez badu lortzen ezein hautagaik gehiengo absolutua, automatikoki aldarrikatuko da Alkate boto kopururik handiena lortu duen zerrendako buru den Zinegotzi hautatua. Enpatea gertatuz gero, zozketa bidez ebatziko da.

Informe honen ondoren eta gai honi buruz ditugun aurrekinetan oinarrituz, Alkate-gai izendatzen dira ondoko Zinegotzi hautatuak:

- Unai Larreategi Azurmendi Jn., EHBILDU koalizioaren zerrenda-buru dena.
- Iker Aldazabal Basauri Jn., EAJ-PNV alderdiaren zerrenda-buru dena.
- Patricia Borinaga Albeniz And., PSE-EE (PSOE) alderdiaren zerrenda-buru dena.

Idazkariak txartela ematen dio, zurian, hautesle bakoitzari, adieraziz bertan jarri behar dituela Alkate izateko bere botoa ematen dion Zinegotziaren izen-deiturak, eta txartela doblatuta entregatzeko.

Behin txartel guztiak jasoz gero, botoen kontaketa egiten da eta ozen irakurtzen dira Alkate izateko txartel bakoitzean proposatu den Zinegotziaren izen-deiturak, honako emaitzarekin:

- Unai Larreategi Azurmendi Jn., bost botorekin.
- Iker Aldazabal Basauri Jn., sei botorekin.

Bertan daudenei txartel guztiak egiaztatzeko aukera ematen zaie eta, halaber, eragiketa aritmetikoa ere, ondoren txartelak puskatuz.

como sigue:
-Son candidatos todos los Concejales que encabecen las correspondientes listas.
-Son electores todos los Concejales electos presentes.
-La elección se realiza por papeleta secreta mediante una sola votación.
-Resultará elegido el candidato que obtenga la mayoría absoluta legal de votos como mínimo.
-Si ningún candidato obtiene en esta votación la mayoría absoluta, será proclamado de modo automático Alcalde, el Concejal electo que encabece la lista que haya obtenido mayor número de votos. En caso de empate se resolverá por sorteo.

Tras este informe y en base a los antecedentes obrantes sobre el caso, se proclaman candidatos a Alcalde los siguientes Concejales electos:

- Don Unai Larreategi Azurmendi, cabeza de lista de la coalición EHBILDU.
- Don Iker Aldazabal Basauri, cabeza de lista del partido EAJ-PNV.
- Doña Patricia Borinaga Albéniz, cabeza de lista del partido PSE-EE (PSOE).

El Secretario facilita a cada elector una papeleta en blanco con la indicación de que en la misma debe consignar el nombre y apellidos del Concejal que se vote para Alcalde y entregar las papeletas dobladas.

Recibidas todas las papeletas se procede al escrutinio y recuento de votos, leyéndose en voz alta el nombre y apellidos del Concejal propuesto para Alcalde en cada papeleta, dando el siguiente resultado:

- Don Unai Larreategi Azurmendi, cinco votos.
- Don Iker Aldazabal Basauri, seis votos.

Se invita a todos los presentes a que comprueben todas las papeletas y verifiquen la operación aritmética, procediéndose acto seguido a la destrucción de las papeletas.

Botazio honen emaitza ikusirik, eta kontuan izanda Iker Aldazabal Basauri Jn.k lortu duela botoen gehiengo absolutu legala, Udal honetako Alkate aldarrikatu da EAJ-PNV alderdiko Iker Aldazabal Basauri Jn. Zinegotzi hautatua.

A la vista del resultado de esta votación y habida cuenta de que D. Iker Aldazabal Basauri ha obtenido la mayoría absoluta legal de votos, es proclamado Alcalde de este Ayuntamiento el Concejal candidato D. Iker Aldazabal Basauri, representante del partido EAJ-PNV.

Jarraian, Iker Aldazabal Basauri Jn. Zinegotzi hautatuak adierazten du onartu egiten duela Udaleko Alkate kargua eta, promesa egin ondoren, Alkate karguaren jabetza hartzen du edukitza hau ematen dion Korporazioko Udal Batzarraren aurrean, edukitza horrek barnean hartzen dituelarik indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiak.

A continuación el Concejal electo, D. Iker Aldazabal Basauri, manifiesta aceptar el cargo de Alcalde del Ayuntamiento y, previa promesa realizada, toma posesión del cargo de Alcalde ante el Ayuntamiento Pleno de la Corporación que le confiere esta posesión, con todas las prerrogativas, derechos y obligaciones que le atribuyen las disposiciones vigentes.

**Borinaga andrea:** Adostutakoaren arabera bozkatu dugu.

**Sra. Borinaga**: Hemos votado según lo acordado.

**Larreategi jauna:** Amorratuta, minduta eta negar gurarekin nago, baina ez, ez naizelako Alkate izendatua izan, ezta Alkatetza Bilduk eskuratu ez duelako ere. Paktuak legezkoak dira, bai, baina politikan garai berriak bizi direla esaten denean, erantzukizunez jokatu beharra daukagu. Azken 4 urteotan herria zenbat aldatu den esan diguzue, ez Bildukoek bakarrik, baita hemen eserita zaudeten beste askok ere, zenbat aldatu den giroari dagokionez eta herritarren partehartzeari dagokionez politika egiteko orduan. Eta hau ez da izan Bilduri esker soilik, guztion artean bide berri bati ekin diogulako baizik eta urte hauetan politika maiuskulaz egiten hasi garelako, alaitasuna ekarriz herrira. Baina momentu honetan galdera hau da: zer esan behar diogu orain jendeari? Gaurko hau engainu bat izan da. Aurreko legegintzaldian niri egokitu zait Soraluzeko historiako frauderik handiena izatea, nire koordinatzaile kontratuagatik. Berriz diot paktuak ez direla fraude, ez direla iruzur, baina gaur egin duzuen hau, zeuen boto-emaileei zenituzten asmoak ezkutatuta, ez dago fraudetik hain urrun, eta ez Bilduri iruzur egin diozuelako, zeuen jendeari baizik.

**Sr. Larreategi**: Enrabietado, dolido, con ganas de llorar, no por no ser elegido alcalde ni porque Bildu no haya logrado la alcaldía, los pactos son legítimos, pero creemos que cuando se dice que se viven tiempos nuevos para la política hay que actuar con responsabilidad. Los últimos 4 años, y no sólo gente de Bildu sino gente que estáis aquí sentados, nos habéis comentado, lo que ha cambiado el pueblo, lo que ha cambiado en cuanto al ambiente y la involucración del pueblo a la hora de hacer política y eso no ha sido sólo por Bildu, sino porque entre todos hemos hecho un camino que ha llevado a empezar a hacer política con mayúsculas estos años, y eso ha traído alegría en la gente. Ahora bien, la pregunta es qué le vamos a decir ahora a la gente. Esto, lo de hoy, ha sido un engaño. Durante la pasada legislatura se ha personalizado en mi persona como el mayor fraude de la historia de Soraluze por mi contratación como coordinador. Vuelvo a decir que los pactos no son fraude, pero esto que habéis hecho hoy, escondiendo a vuestros votantes las intenciones que teníais, no está muy lejos del fraude, no fraude a Bildu, sino que

Izan ere, zeuen zerrendetan joan diren batzuk lotsatuta daude eta gertatu den hau jakin izan balute ez ziren zerrenda horietan aurkeztuko.

Gauzak horrela, erronka bat luzatu nahi dizuet: bigarren buelta bat egin dezagun bi hilabete barru, zeuek nahi duzuen aukerarekin eta geurearekin, aurrez aurre jarrita eta azken egunotako zirko mediatikotik aldenduta. Izan ere, eman genezakeen elkarbizitza eredurik kaxkarrena eman dugu.

Berriz diot paktuak legezkoak direla, zilegi direla. Esan behar dut, hala ere, azken lau urteotan lan handia egin dugula guztiok eta zuek ere duela gutxi aitortu diguzue urte hauetan gustura lan egin duzuela, eroso sentitu zaretela eta modu oso positiboan baloratzen duzuela egindako lana. Konbentzituta nengoen, bada, ez zela aldaketarik gertatuko. A ze inozoa izan naizen jendearengan sinestearren! Orain, hausnarketa egitea eta geure lekua aurkitzea tokatzen zaigu, baina garbi daukagu lanean jarraituko dugula, herriarekin eta herriarendako. Horretan datza boterea, herriarekin lan egitean askatasun ametsak bete daitezen.

Eta amaitzeko, gure herrian aginte-makila emateko ohiturarik ez badago ere, beste opari hau eman nahi nizuke, herriak azken urtean gordeta izan duena, eta opa dizut paketetik atera beharrik ez dezazula izan.

hay gente que ha ido en vuestras listas que está avergonzada de haber ido y que de saber que iba a pasar esto, nunca se hubiera presentado.

En consecuencia me gustaría haceros una invitación, hagamos una segunda vuelta dentro de dos meses con la opción que queráis y la nuestra, pero de frente, no este circo mediático que se ha dado estos últimos días. Hemos dado el peor ejemplo que se podía dar sobre convivencia.

Vuelvo a repetir que los pactos son legítimos, pero en los últimos 4 años todos hemos trabajado mucho y ahora que, vosotros nos trasladasteis hace poco que estos años habéis trabajado a gusto y que habéis estado cómodos y que valorabais muy positivamente el trabajo realizado y yo convencido que no se iba dar este cambio, tonto de mi por creer en la gente. Con todo esto nos tendremos que recolocar y reflexionar, pero sí tenemos claro que vamos a seguir trabajando por el pueblo y para el pueblo, ya que es donde reside el poder, trabajar con el pueblo para lograr el sueño de la libertad.

Para terminar, en este pueblo no hay tradición de pasar la makila pero sí me gustaría darte este regalo que el pueblo ha tenido guardado durante el último año y ojala no lo saques del paquete.

**De Castro andrea:** EAJren bozeramaileak lau urte pasa ditu koherentzia hitza ahotik kendu gabe. Seguruenik, horixe izan da batzar areto honetan gehien errepikatu den ideia legegintzaldian zehar: EAJren koherentzia. Udal hauteskunde ostean, zuekin elkartu ginenean, Bilduren lan egiteko erarekin konforme zeundetela adierazi zeniguten. Denon artean egindako elkarlana izan da eta da guztion helburuetariko bat. Duela lau urte, hauteskunde ondorengo negoziazioetan, Nagorek esan zuen guztion eginkizuna zela Soraluze elkarrekin eraikitzea eta mundura irekitzea. Nagoren ideia hori oinarri hartuta lan egin dugu urte hauetan, horretan sinesten dugulako.

Hauteskundeek utzitako argazkia duela lau urtekoaren antzekoa bada ere,

**Sra. De Castro:** Hemos pasado 4 años oyendo en este salón de plenos al portavoz del PNV con la boca llena hablando de coherencia, seguramente la idea más repetida a lo largo de la legislatura por el PNV, la coherencia con la que actúa. Después de las elecciones, cuando nos reunimos con vosotros, se nos trasladó vuestra conformidad con la forma de trabajar planteada por Bildu. El trabajo entre todos era y es un denominador común de todos, hace 4 años en la negociación Nagore dijo que había que construir Soraluze entre todos y abrirlo al mundo. Cogiendo esa idea de ella, hemos trabajado estos años porque realmente creemos en ella.

Las elecciones han dejado una foto parecida a la de las elecciones de hace

orduan zerrenda bozkatuena errespetatu zen eta orain, aldiz, ez. Zer aldatu da? Non daude elkarlana eta hain gustukoa duzun koherentzia? Koherentzia hitza berriz ez erabiltzea espero dut, gaurkoaren ondoren sinesgarritasun osoa galdu baituzu, inoiz izan baduzu behintzat. Elkarrekin lan egitea eskatzen diguzue, baina elkarlana eta partehartzea bultzatzeko benetan lan egin duen taldea kanpoan utzita.

Zer aldatu den? Ba, azken lau urte hauetan egoera ekonomikoa onbideratu egin dugula, hasieran finkatutako bideari jarraiki. Duela lau urte udal kudeaketa geure gain hartzea fardel bat izan bazen ere, egun gozoki bat da eta ez duzue zalantzarik izan. Paktuak bai ala ez, azken erabakia batzokian hartu duzue. Izan ere, zeuen militante askoren iritziaren kontra hartutako erabakia izan da, herritarren gehiengoaren kontra, zuen zerrendetan joan diren hainbaten kontra eta, baita ere, hemen eserita dauden batzuen kontra. Hauetariko batzuk behartuta joan dira zerrendetan, beste batzuk beste inor ez zegoelako eta bada zerrenda-buruarekin inoiz hitz egin gaberik ere. Esan didate, EAJren zerrendetan joan diren batzuk lotsa sentitu dutela erabaki hau ezagutu dutenean, eta aurretik jakin izan balute ez omen ziren zerrendetan joango. Gogorik gabeko jendea daukazue taldean, apatia nabaria da. Horixe da Soraluzeri eskaintzeko daukazuena, egindakoaz lotsatzen den jendea. Oso tristea irizten zait, zuengatik, eta, batez ere, Soraluzek hoberik merezi duelako.
Amaitzeko esan nahi dut nik lanean jarraituko dudala, burua tente eta irribarrea ezpainetan, orain arte bezalaxe. Bakarrik espero dut lau urte barru nik gaur dudan satisfazio bera sentitzea zuek ere, lan ona egin izanaren seinale izango baita.

**Alkate jauna:** Konfiantza nigan jarri duten soraluzetarrei eskerrak ematen hasi nahi nuke. Ondo dakit Alkatetza zein egoeratan hartzen dudan eta honen inguruan sortu den tentsioa. Nire nahia da egoerari buelta ematea eta

4 años, pero hace 4 años se respetó la lista más votada. Ahora ¿qué ha cambiado? ¿dónde ha quedado ese trabajar entre todos y la coherencia que tanto te gusta? Espero que sea una idea que no se vuelva a utilizar, ya que después de esto has perdido toda credibilidad si es que alguna vez la has tenido. Nos pedís trabajo en común pero dejando fuera al grupo que realmente ha trabajado para impulsar ese trabajo en común y la participación.
Que ¿qué ha cambiado?, pues que los últimos años hemos saneado la situación económica siguiendo el camino marcado. Si hace 4 años hacerse cargo de la gestión municipal era un marrón hay en día es un caramelo que no habéis dudado en coger. Pactos o no pactos, la última decisión ha sido del batzoki, decisión tomada en contra de parte de vuestra militancia y de gran parte de la ciudadanía y de gente que ha ido en vuestra lista, gente que está aquí sentada y que no está de acuerdo con la decisión tomada. Algunos de ellos han ido obligados en la lista, otros porque no había nadie más, algunos sin haber hablado nunca con el cabeza de lista, lo que a mí me ha dicho la gente, quien se ha avergonzado de ir en la lista del PNV tras conocer esta decisión y que si hubiese sabido esto no hubiera ido en la lista. Tenéis gente sin ganas en el grupo, transmitís apatía, esto es lo mejor que tenéis para ofrecer a Soraluze, gente que se avergüenza de lo hecho. Me parece muy triste por vosotros pero sobretodo porque Soraluze merece algo más.
Para terminar decir que yo voy a seguir trabajando con la cabeza alta y una sonrisa, al igual que lo he hecho hasta hoy y espero que dentro de 4 años tengáis la misma satisfacción que tengo yo, porque será señal de haber hecho un buen trabajo.

**Sr. Alcalde:** Me gustaría dar las gracias a los soraluzetarras que han puesto la confianza en mí. Soy muy consciente de la situación en la que llego a la alcaldía y la tensión creada. Mi intención es darle la vuelta a la situación y lograr acuerdos

adostasunera iristea. Eskua luzatzen dizuet elkarlanean aritu, egoera irauli eta guztion arteko akordioak lortzeko, guztiok baitaukagu helburu bera: Soraluze eta soraluzetarren bizitza hobetzea.
Izendapen hau ohore handi bat da niretzat, baita erantzukizun handia ere. Jakin ezazue nire denbora eta esfortzu guztia eskainiko dizkiodala helburu amankomun honi. Datozen lau urteetan zuek guztiokin akordioak lortzea espero dut eta nire lana apaltasun osoz baina ideiak garbi edukita egitea, 12 urte baitaramazkit Udaletxean zinegotzi moduan eta ondo ezagutzen ditut herriaren premiak.

Eskua luzatzen dizuet berriz ere elkarlanean aritzeko eta lana, lana eta lana egingo dudala hitz ematen dut.

entre todos. Yo os tiendo la mano para trabajar en común y darle la vuelta a esta situación y lograr acuerdos en común, ya que todos tenemos el mismo objetivo que no es otro que mejorar Soraluze y la vida de los soraluzetarras.
Supone un gran honor y una gran responsabilidad este nombramiento y voy a dedicar todo mi tiempo y trabajo a la consecución de ese objetivo común. A lo largo de estos 4 años espero llegar a acuerdos con todos vosotros y realizar mi labor con toda humildad pero con las ideas claras, ya que llevo siendo cargo público en el ayuntamiento desde hace 12 años y conozco bien las necesidades del municipio.
Vuelvo a tenderos la mano para un trabajo en común y prometo trabajo, trabajo y trabajo.

**Unamuno andrea:** Ni hauteskundeetara aurkeztu naiz azken urteotan herrian egin denaren eraginez, hobeto esanda, gauzak egiteko moduak eraginda, herritarrak, euren ideologia edozein dela ere, herriaren etorkizunean nola inplikatu diren ikusita. Gaur desengainu handia hartu dut, ez delako herriaren borondatea errespetatu, zeuen interesak boto-emaileen interesen aurretik jarri dituzuelako, eta horrek apaltasun eza erakusten du. Aldaketak eman behar badira, herritarrek hala eskatzen dutenean izango da. Ez dut uste Soraluzen kudeaketa arazorik egon denik, beste toki batzuetan bezala. Herritar bezala defraudatuta sentitzen naiz.

**Sra. Unamuno:** Yo me presenté a las elecciones por lo que se había hecho estos últimos años en el municipio, más bien por cómo se habían hecho las cosas, por cómo se ha implicado la gente, independientemente de su ideología, en el futuro del municipio. Hoy me siento defraudada porque no se ha oído la voluntad del pueblo, se han primado vuestros intereses a los de los votantes, lo cual demuestra falta de humildad. Si tiene que venir el cambio, ya vendrá cuando se pida. No creo que en Soraluze haya pasado como en otros pueblos en los que han existido problemas con la gestión. Como ciudadana me siento defraudada.

**Larreategi jauna:** Eskua luzatzen diguzuela diozu, baina zaplaztekoa eman eta gero. Oso polita, bai, baina ez da nahikoa. Gertatutakoa barneratu egin behar duzue eta hausnarketa egin eta arrazoitu ostean, planteamendu batekin etor zaitezte, eta ez gaur gertatutakoa zerbait naturala bailitzan.

**Sr. Larreategi:** Dices que nos tiendes la mano, pero lo primero que hacéis es darnos una bofetada. Es muy bonito pero no es suficiente. Creo que esto tenéis que interiorizarlo y una vez pensado y razonado, os pido que vengáis con un planteamiento, pero no como si lo que ha pasado hoy fuese algo natural.

Alkate-Udalburuak amaitutzat ematen du Udal Korporazioaren eraketa ekitaldia, akta honen buruan esandako

El Alcalde-Presidente da por finalizado el acto de constitución de la Corporación Municipal, a las doce horas

egunean, eguerdiko hamabiak eta hogeita hamabost minutu direnean, hori guztia Idazkari gisa ziurtatzen dudalarik.

y treinta y cinco minutos del día indicado en la parte superior de esta acta, de todo lo cual como Secretario, certifico.